

# Basarriren mendeurrena

Zarautzen, 2013ko azaroaren 29an

*Euskera*. 2013, 58, 1. Bilbo  
ISSN 0210-1564



# Alkatearen agurra

ILLARRAMENDI, Juan Luis  
Zarauzko alkatea

Egun on, Andres Urrutia euskaltzainburua,  
Egun on, Euskaltzaindiko gainerako kideak,

Izan zaitezte ongi etorriak Zarautza.

Eskerrik asko Euskaltzaindiari gaur Zarautzi eta Basarri abegi egiteagatik.

Santi Onaindiak aipatzen zuen, bi bertsolari geratuko zirela Euskal Herrian memoriarako. Lehena Enbeita Zaharra izendatzen zuen, eta bigarrena, Basarri. Gaur, zorionez, aitor dezaket, askoz bertsolari on gehiago dituztela izan Euskal Herriak eta Zarautzek.

Basarrirekin hasi, Nikolas Zendoia, Pello Esnal, Andoni Egaña, Iñigo Mantzisor... bertsolari asko eta asko hezi ditu herri honek, eta ordainetan, denek zor diote, zuzenean edo zeharka, euren bertsoen apurren bat Basarri-ri. Nikolas Zendoiak aitortzen dionez, *«garaiko bertsolaritzari duintasuna eman eta itxura eta mamiz eguneratzen ahalegin berezia egin zuen. Bertsolaritza taberna eta sagardotegi-zuloetatik plazara/antzokira atera zuen»*.

Nago, ez dagoela egungo bertsolaritza ulertzerik bere ekarpenik, dotoreziarik eta ahaleginik gabe.

Hori baino gehiago zen ordea Iñaki Eizmendi zena: idazlea, kazetaria, mitinlaria... Baina, batez ere, XX. mendeko gertakari askoren kronista izatea da niretzat bere balore nagusia. Basarrik hitza jarri zion mendearen zati

handi bati prentsan eta irratian, eta bere doinura edertzen ere jakin zuen aski mingotsa zena.

Ez nuke, herriko alkate naizen aldetik, bizian zehar pairatu zituenak ahaztuta jarraitu nahi. Gerra ezagutu zuen, ertzain ibili zen, geroztik ihesean bizitzera lehenik eta *trabajadore* setan aritzera zigortua izan zen urte luzez gero... Herri honek, Euskal Herriak eta herri honek, Zarautzek, bizitakoa ezagutu eta gorde zuen, gero hura kontatuz eta kantatuz.

Zarauztar bezala, herri hau maite zuenaren eredutzat ditut, baita ere, *Ene Zarautz maite* bertso sorta eta herriko jaietan abesten dugun Pelaio deunaren ereserkia.

Horregatik guztiagatik, eta Azken Portu taberna bertsoaren habia egin zuelako urte askoan, aurten, bere lana gogoratu nahi dugu, bere jaiotzaren mendeurrenean. Bertsolari handi batek, ohorezko euskaltzainak merezitako aitortza jasoko du aurten, baina bere baloreei uko egin gabe, herritartasuna, memoria eta bertsolaritza jasoaren bidez.

Herri hau maite zuelako eta herriak maite duelako,

Herri honen memoria gorde zuelako eta herri honen memoria bizia delako.

Eskerrik asko berriz, gaur hemen izateagatik Euskaltzaindiari.

Eskerrik asko Zarauzko herriaren izenean.

# Basarriren mendeurrena: Beama (Errezil) 1913-XI-27 - Zarautz, 1999-XI-03

IRIONDO, Joxemari  
Ohorezko euskaltzaina

«Arratsalde on Jainkoak, eta Basarrik!»  
Horrela hasi ohi zuen garai batean bere saioa Donostiako irrati batean.

**Basarriren idazlan asko 1931-1943** (*Auspoa* 327-238 bikoitza) liburuen aurkezpena egiteko asmotan ginen; baina gure usteak erdi ustel izan dira. Mahatsa heldu baino lehen txakolin festa antolatu nahi genuen nonbait, eta mila oztupo etorri: lanak burutu ezina, Durangoko azoka dela-eta sekulako lanak inprimategietan... Haatik, hurrengo abenduaren 17an aurkeztuko dugu gure proiektuaren zati polit bat: **Basarri. Zarauzko berriak. 1931-1936** (*Auspoa* 327).

Dakizuen bezala, azaro honen 27an bete dira ehun urte Inazio Eizmendi Manterola *Basarri* bertsolari, idazle eta esataria jaio zela Errezilgo Beama auzoko Granada baserrian, gero Zarautzen bizi eta hil bazen ere, 1999ko azaroaren 3an.

Gurasoak ni tokiz aldatu ninduten gazte nintzala,  
baña nunaitan nabarmentzen da arbol zarraren itzala.  
Erniopean zaude, Errezil, zeru txiki bat bezela;  
arrokeri bat badet nerekin: ortxe jaioa naizela.

Beama izeneko ballara dakart lenengo itzetik.  
Ni jaio nintzan baserri orrek erreka bat du ertzetik.  
Argia lenen or ikusi nun; maitatzen det biotzetik.  
Ni laster eroriko naiz baiña zu egon zaitea zutik.

Errezilen, 1954-05-17

*Euskera*. 2013, 58, 1. 55-66. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Gurasoek Azpeitiko Maristetara bidali eta zerbait ikasten hasi zenerako, ordea, Zarautza etortzea erabaki zuen Eizmendi Manterola familiak, Granada erreka zoko ospela utzita. Geroztik errezildar-zarauztar sentitu zen beti Basarri: «Zer nai dezu nik esatea? –esan zidan 1980 apirilean egindako elkarrizketa luze hartan–. Zazpi urte nituan ezker omen bizi naiz, eta ni zarauztarra sentitu izan naiz bizi guztian».

Bere jaiotzaren mendeurrena dela-eta *Auspoa*-k omen eta ohore egin nahi dio bertsoaritza eta euskararen alde hainbat lan egin zuenari, idatzizko eta ahozko euskararen sailean merezimendu ona baitu gure ustez.

Holaxe pentsatu zuen Euskaltzaindiak ere, *euskaltzain urgazle* (1961-8-25) eta *ohorezko euskaltzain* (1984-XI-30) izendatu zuenean, bere merezimenduak goioan. Euskerazaintzak, berriz, *euskaltzain oso* izendatu zuen (1992).

## Bertsolaria

Lehendik ere ezaguna zen Basarri, ertzain, gudari eta bertsolari izateaz gainera, egunkari eta astekarietan sarri idazten baitzuen. Hala ere, Basarri oso ezagun eta ospetsu egin zuena, 1935eko *Bertsolari gudua* izan zen.

Zestoako Batzokian egin omen zuen bere lehenengo bat-bateko bertso saioa, hamazazpi-hemezortzi urte zituela. Jaiegun hartan Zestoara joan zen bere lagunekin, eta bertsolari bat hantxe mitin batean bakar-bakarrik ari zela ikusi, eta berarekin egin zuen saioa, «nere lagunak beartuta», esan ohi zuen. Ordizian bizi zen Erauskin Errotaria zen bakarrik ari zen bertsolari hura, izatez Zaldibiakoa. Haren ondoren, garai hartako Euskal Herriko bertsolari on guztiek/onenekin kantatu zuen, hamazazpi urtetan hasi eta 1970eko hamarraldira arte herriz herri etengabe ibiliz. Txirrita, Saiburu, Olegario, Frantxes txikia Matxin Irabola, Sasi aita- semeak, Nekazabal, Exkerra, Euxebio Txapel, Kepa Enbeita *Urretxindorra*, Zepai...

Baina Uztapide izan zuen bertso-lagunik leialena, 1944-1945ean hasita. Biek elkar osatu eta elkar edertzen zuten; eta hamaika bazkalondo/afalondo gozatu zuten Basarrik idatzitako *Atxulei* eta *Lesakako festetako* bertsoak elkarrekin kantatuz, batek goitik, besteak behetik, duo eginez.

«Bizi balitz esango lizuke oraindik ere. Lau erri bagenituan Manuel eta nik urtero bazkaritan langosta ematen zigutenak. Zarauzko estazioan trenea artu eta, Madalenak baziran, Oriora eldu baiño leen esango zizun: –Gogoan al daukag gaur zer bazkari daukagun? – Ark bazekian langosta jango genuela Errenterian. Gaiñerako errietan ere emale onak ziran, noski...».

Batista Gaztelu *Gaztelu Gorriari* mirespen eta maitasun berezia zion. Aginagan ezagutu omen zuen, 1935eko idazlan batean dioenez.

Aginagan giñan. Antxe erromerian gertatuta edo, nere lagun batzukin ostatu batera sartu nintzan. Gaztelu bertsoetan ari zan, baña bakarrik. Nere lagunak asi zitzaizkidan puntarak boteaz, eta azkenean jarri ninduten berarekin. Amazazpi urte nituan artean.

Ene, zein laguntzalle Bautista! Seme bat bezela artu ninduan. Nik ere, alatsu jarri eta oraintxe aspertzera egin genduanean, galdera batzuk egiten asi zitzaidan. Baña ez kantuz, itzez baizik (*Argia*, 1935-II-20).

## Basarri kazetaria

Bertsolari ez ezik, idazle, kazetari eta irratiko esatari ere izan zen hirurogeita lau-bost urte luzez (1931-1995). Betiere *freelancer* edo autonomo moduan egiten zuen lana. Eta hori bai, ikaragarri *euskaldun fededun* zen.

Kazetari bezala beroa zen, ikaragarri beroa. Ez zuen aski notizia eman edo komentarioak egitea; bere iritzia eransten zion idazlanari. Politikoa izan balitz mitinlari bikaina, seguru asko; baina partiduko gizona zen, eta horrekin nahiko.

Irratiko grabaziorik ezin, baina hark argitara emandako idazlan eta herriko kronika asko (bertso nahiz prosan) biltzen ahalegin berezia egin dugu urtetan, behin batean Antonio Zavalari emandako hitza bete nahirik, batez ere gerra aurreko urteetan *Euzkadi* (Bilbo, 1931-1937), *El Dia* (1930-1936), *Argia* (Donostia, 1921), *Eguna* (Bilbo, 1937), *Tierra Vasca* (1933), eta *Euzko Deya* (Bilbo, 1916 – Paris, 1936) egunkari eta astekarietan idatzi zituenak biltzen, aldi bateko gure historiaren lekuko zuzenak direla-eta.

Hari-mataza horrixek tiraka osatuko du *Auspoa* sailak hurrengo udaberri-udan argitara emango duen **BASARRIREN IDAZLANAK – 1931–1943** bilduma. Izenburuak dioen bezala, aldi horretako bilduma duzu: 1931ko azaroaren 11n hasi eta 1943ko ekainera arte argitara eman zituen idazlanak bilduz. Eta horrela osatu dugu abenduaren 17an aurkeztuko dugun **BASARRI. ZARAUZKO BERRIAK, 1931-1936** ere. *Euzkadi* egunkariko «Errijetatik», eta *El Día* egunkariko «Euskal orrian» argitara emandako laurogei kronika inguru dira.

Bildumak osabetetzeko erabili edo azterkatu ditugun egunkari eta aste-kariok honako hauek izan dira:

- **Euzkadi.** 1931-11-11n lehenengo bertsoak (*Nere arrebatxubari*), eta egun berean *Errijetatik* sailean Zarauzko kronika (25) idatzi zuen. Artikulu neurriko idazlanak, 1933ko otsailaren 23an egin zuen lehenengoa, eta 1936ko abenduaren 23an azkena.
- **El Día:** 1932ko urtarrilaren 20an aurkitu dugu Basarriren lehenengo artikulua, eta 1936ko martxoaren 14an, azkena. Eta *Euskal Orria* sailean 50 kronika, 1931-12-13an hasita.
- **Argia:** 1932ko irailaren 7an estreinako artikulua, eta 1935eko urriaren 27an azkena.
- **Eguna:** 1937ko urtarrilaren 3an argitaratu zuen lehenengo artikulua egun haietan sortu zen egunkari honetan. Azkena, 1937ko ekainaren 12an idatzi zuen.
- **Euzko Deya:** Franco diktadorearen tropek 1937ko ekainean Bilbo hartu zutenean, beste askok bezalaxe hanka egin behar izan zuen Basarrik ere; iparraldeko Landetara joan zen, han basomutil lanetan bizimodua irabazteko. Eta ez zuen idatzi 1938ko uztailaren 27an lehenengo artikulua argitaratu zuen arte. Azkenengoa, 1940ko apirilaren 10ean idatzi zuen, Pedro Mari Otaño bertsolariari buruz.

Badakigu aldizkari gehiagotan ere idatzi zuela Basarrik garai hartan, adibidez *Euzko Langille*-n. Garaiz begiratuko dugu hori ere.

**Basarri irrati gizona** Inongo ikastetxetan ikasita ez, baina Beamako apai-zari haurtzaroan entzundakoen imintzioak eginez, edo, beharbada, Zarauzko frantziskotarretan entzundako sermoiak gogoan, mintzalari onaren sena



zuen. Bazekien hitza nola erabili, ahotsaren gorabeherak egoki modulatu, isilaldiak egin, eta bere jarduna dramatizatzen. Maisua zen bere guda lagunei hitz egiten ere, edo eta edozein bazkalondo edo jaialdiren ondoren neurri librean hitzak errimatuz mintzatzen. Bazuen adurra bere entzulea ahoa bete hortz edukitzeko, erabat txundituta.

Irratiko lanari dagokionez, Zubimendi eta Luzear astean ordubeteko irratsaioa euskaraz egiten asi zirenean, 1932an, behin baino gehiagotan eraman zuten irrattira Zarauzko taldearekin batean, bertsoak kantatu edo hitzaldiren bat egin zezan irratsaioa bete eta gozatzeko.

1949ko udazkenean hasi ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntasunez, Basarri, Jose Artetxe, Beorlegi, Maria Dolores Agirre, Milagros Bidegain eta talde bat irratsaioak egiten astero; eta hitz egin eta bertsoak kantatzen zituen Basarrik, beti ere bere moralina erantsiz. Zazpi-zortzi urte iraun zuen halaxe.

1957an hasi ziren berriro, Donostiako *La Voz de Guipuzcoa* irrattian. Aldi hartako lehenengo irratsaioa 1957ko irailaren 13an eman zuten, *Audición de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián* izen ponpoxoarekin, aurrezki kutxa haren babesean, ostiral arratsalde/arratsetan. Eta ordu horretan zain eta adi egoten zen jende asko ezagutu genuen.

*Nere Bordatxotik* atalean kontakizun eta albisteak eman ohi zituen Basarrik, eta azkenean, bertso bat edo bi kantatuz aipatu zuen gai bakoitzari bere moralina eransten zion.

Lehen esan bezala, ez dago garai hartako irratsaioen grabaketarik –baldin eta zuetako norbaitek gordeta ez baditu–. Hala ere, eskerrak azkenengo urteetan, 1980ko hamarraldian Euskadi Irrattian egin zituen saio batzuk ondo gordeta gelditu diren.

## Gudako kazetari

Lehenengo Ertzain eta gero Euzko gudarostean ibili zen garaian gudako kazetaritza-lana egin zuen Basarrik, bera bezalaxe etsai askoz indartsuago baten aurka borrokan zebiltzan gudamutilak animatuz:

**Jeiki euzkoak, gora Euzkadi**

Adar otsa entzun da gure mendietan. Gudara, gerrara deitzen zaio erriari. Goazen guziok, goazen beldur gabe! Geure izen ona nardas-katzen ez dezagula utzi.

Gudara, mutillak, gudara!

Euzkoak gerala konturatu. Lengo edestia bururatu. Lautik iruko sail ederra etsaien zai degu. Alaz ere ez euren egiterik asetzen.

Erabat galdu nai gaituzte; gu galdu ezkerro besteekikoa laister egingo lutekela jabetu dira. Munduaren aurrean gure gobernoak bestek ez bezelako izena dauka, ta orrek neurrigabeko ziztada de-maiote etsai ankerrai.

Dakazkiten gizonak ez dira urre emateko. Gerra irabazpidetzat artuta derriorrean datozen jopuak dira geienak. Emengo mutillak galtzairuzko gorputza dute agerkai. Dana jokutzen ari baitira. Gura-soak, anaiak, etxea, maiteñoa, aideak, aberria... Nor ez benetako gudari ola?

Jeiki, jeiki, etxeuok  
argia da zabala  
itxasotik mintzatzen da  
zillarrezko trunpeta,  
baita ere ikaratzen  
Olandresen (?) ibarra.

Jaiki bai aberriaren egal batetik besterañoakoak. Jaiki gogoz, zutin-du orok. Izkillua lagunik aundien. Denok gudari, denok euzkotar!

Batu, bildu, alkartu denok! Ez gaur degun aberri zati txiki au zai-tzeko bakarrik, paxisten menpe ditugun lur guzietzaz jabetzeko baizik.

Onuntz ingura nai duten maltzur ustelak zapaldu, birrindu, ta Araba ta Gipuzkoa bein da betiko geureganatzeko. Orain da garaia, oberik egundo ez. Oraintxe egin bear dira egitekoak.

Errege biak azken burruka iragarrian ikusirik, Dugueschin-ek zion:

«Ni pongo ni quito rey, pero ayudo a mi señor!»

Jaun aren laguntza izan zan aldera erabaki zan burruka.  
Gañontzeko uskeri guziak utz ditzagun alde batera.  
Euzkadigatik, aberriagatik, erri zar onen askatasun zorionagatik  
guzia.

Guzia, dena!

Etsaiok iñun artu duten jipoirik ikaragarriena emen artu bear  
dute.

Ortarako gauza bat palta degu: Goiko laguntza.

Itxurak diranez, laister izango degu berriz.

Jeiki, euzkoak, gora Euzkadi!

Enbeitarekin batera dirautzuek:

Anaiak gara Lapurditarrak,  
Zuberotar ta Naparrak;  
Anaiak Gipuz-Bizkaitarrak.  
Guztion ama Euzkadi da ta  
gu bere seme bakarrak.  
Mugak kendu ta jarri dezagun  
Aberri oso bakar bat.

*Eguna, 1937-04-08*

Holako idazlanez beteta dago Basarriren garai hartako kazetaritza. Eta harreman ona zuen egunkariko arduradunekin, ikusi bestela *Bidani'tarren poza* idazlanaren ondorengo ohar hau (*Euzkadi*, 1936.09.09):

Uarra: Zure idazki au, eta beste bat be, une onetan ekarri daustez.  
Emetik aurrera egunoro idazteko asmua dozula diñozu, eta, arren,  
artuta beriala *Euzkadi*-n argitaratzeko.

Alantxe egingo dogu, eta pozik egin be. Idazki au irakurri dogu-  
neko irarkolaratu dogu. Eta bigarrena, Goikua lagun, bijar argitara-  
tuko dogu.

Bijar argitaratuko dogun ori, bertso eta guztikua da ixan be, eta  
idazkiñan edo idazteko makiñan idatzija. Gudari-mutillentzat ori,  
Basarri, lujo aunditxuba ezta ixango? Beste batzuketan, arkatzagaz  
eta al ixan dozun eran idatzita bidaltzen ixan dozuz, eta alantxe zure  
enparauko gudari-lagunak be - L.

«L» hori Estepan Urkiaga *Lauaxeta* zen.

Iparraldera ihes eginda gero urtebete pasatxoko etenaldiaren ostean be-  
rriro hasi zen idazten, *Euzko Deya*-n.

Iheshlari garaian idatzi zuen bertso asko, *Euzkadi* eta *Euzko Deya*-n Parisen  
argitaratu ziren. Eta gero Antonio Zavalak bildu eta egindako *Nere Borda-  
txotik* bilduman (*Auspoa sail nagusia* – *Sendoa* 1992) daude, besteak beste,  
honako hauek:

- Landes’ko piñu artean (Paris, 1938-II-03)
- Prantzi’ko alkate bati (Basarriren bertso sorta, Zarautz 1950)
- Euskal Mixioak Ichoux’en (Paris, 1938-VII-9an)
- Ichoux’ko madame Sart’eri (Paris, 1938-VIII-27)
- Ondarrutar gazteeri (Euzkadi, 1938-XI-15)
- Gazte denboran neska bati (Auspoa, 1966)
- Zorionak, Eresoinka (Paris, 1938-V-12)
- Itzaldi bat (Paris, 1938)
- Au duk komeria! (Paris 1938-XI-15)
- Olakorik... (Paris, 1938-XI-15)
- Euskaldun ama (Paris, 1938-XII-15)
- Amerika’ko anaiak, entzun (St. Pierre d’Irube. Paris, 1938-X-16)
- Mussolini ta Hitler (Euzko Deya, Paris 1939-IV-16)
- Udaberrian gera
- Agur, Euskadi! (1939-VI)
- Amerika’ko euskaldunak, entzun.

## Trabajadoreen batailoian

Landetako pinudietan basomutil zebilela (1937-1940), inoiz inguratzen  
zen muga aldera. Eta, batez ere, bere gurasoak, senideak, lagunak, denak  
etxera etortzeko deika ari zitzaizkion garai hartan. «Gure ama gaixoa etxera

etortzeko eta etortzeko ari zitzaidan beti, gauzak konpondu zirala-ta. Ez zitzaidala ezer pasatuko esaten zidan» kontatu zigun, 1980ko apirilean Zarautzen egindako elkarrizketa luze batean. Horrelaxe uste nonbait ama alargun gaixoak, eta horrela nahi semeak ere.

1940ko urrian arriskatu ziren, hil edo bizi, Irun-Hendaia *Pausua* pasatu eta herrirantz abiatzeko. Baina amaren ametsak eta semearen usteak, denak ustel gertatu. Zubian bertan hartu eta *trabajadoretara* eraman zituzten zuzenean.

Adibidea hementxe dago, Bejar-Salamancan, 1941eko martxoaren 13an ondutako hamahiru bertsoa sortu batek dioenez:

Oraintxen dala sei illabete etorri giñan Prantzitik,  
guraso maite biotz biguñak deika baigiñun etxetik.  
Gure kabiak urre genitun guk Endaiako zubitik...  
Irunen zegon sare zabalak artu ginduzen erditik!

Mirandatikan Madrida, eta gero Madritik Bejarra,  
bagoi zarretan txerrien gisan, etzan pasio ederra!  
Erri ontako gure izakera daukat agertu bearra:  
gose askorik ezta pasatzen, baizik beti bat bakarra.

(Bejar-Salamancan, 1941eko martxoaren 13an)

Garai hartako bertso batzuk eskuz eta letra bikainarekin idatzita utzi zituen Basarrik, eta Tomas Uriarte lagunak gorde Santimamiñeko (Kortezubi-Bizkaia) Txukene baserrian. Ez dakit Tomas busturiarra zen, baina herri horretan hil zela bai.

Euskal Herritik oso urrutira eraman zituzten Aritxulegitik. Afrikan, Seghangha eta Al-Diedirra, alajainkoa! Urrun zegoen hura (*Zer urrun dagoen Camerun*). Eta ez dirudi bizitoki berria aurrekoak baino xamurragoa zenik. 1943ko martxoaren 4an bere lagun Tomax Uriarteri bidali zion gutunean hola baitio:

Aztu eziñeko Tomax maitea: Ona emen lorik gabeko gau amaitu eziñeko baten ondoren datozkidan burutapenak. Atzo ere euri eguna genduan eta gure aterpean kanpoan bezela egiten duelarik, ez gera geiegi atsedenduak.

Hala ere, bazuen bertsoak/olerkiak idazteko hainbat umore. Gutun horrekin batera zortzi ahapaldiko bertso edo olerki sorta bidali baitzion, «esateko» direla adieraziz:

Bijoaz beingoz laiño zakarrok, ta betor zero argia!  
Ega bitez euskaldun usoñoak. Azka bedi aberria!

Ene biotz gaxo zauritua! Mintza zaite gaurkoan.  
Adierazi mingotzaldiak zeure izkuntz goxoan.

Gose, egarri, otzaldi, bustiak, dan danak zuretzat zeuden.  
Ainbat zigor artuta, eztakit bizirik nola zauden!

### Etxera!

Joanak joan, libre utzi zuten 1943ko ekainean. San Pelaio festarako bere Zarautz maitera itzuli zen, zazpi urte luzeko amets gaiztoa gaindituta. –1937an etxetik alde egin eta 1943ko ekainaren 26an heldu zen Zarautza–.

Bakarrik etorri zen barkuan, bertso kantari, «itxaso aundi artako katxalote eta arraiak entzule nituala pentsatuta», kontatu zigun.

San Pelaio festak ondo ospatzen ahalegindu zen eta, gero, Tomax adiskideari idatzi zion, ekainaren 29an –Harrigarria, gazteleraz idatzi zion, zehaztasun asko kontatuz. Idatziaren bigarren zatian honelaxe zioen: «... de Málaga a Madrid fue un viaje pésimo. Una calor que achicharraba, y en la misma posición que las anchoas en lata...»

Bitxikeria eta txutxu-mutxu asko kontatu zion bere lagunari; baina, batez ere, inoiz ikusi zuenik Zarautz ederrena aurkitu zuela. Ostatu eta etxe danak udatarrez beteta zeudela, eta honi *kaixo* eta hari *agur*, aspertu ezinik zebilela.

Bere gutunak amaitzeko, gehienetan, «Jel-baitazko», «Jel'pean», «Jel'en baitan» eta holakoak erabiltzeko ohitura zuen. Baina ez zion horrelakorik ezer ere jarri gazteleraz egindako gutun hartan. Garbi zegoen haren mezua: nola edo hala, gutuna bere lekura hel zedin nahi zuen.

## Berriz ere lanera

Etxera itzuli eta bertsotan hasi herriz herri Basarri. Baina «Kontuz ibili bear izan genduan, zer esaten genduan ondo begiratuta, bestela berriz ere barrura joateko arriskua zegon-da. Edozeñek esaten zizun, *Aizak, kontuz ibili adi, bestela badakik*. Eta gu ikara bizian beti».

Afizioz eta ofizioz, berriz ere idazle eta kazetari lanetan hasi zen, 1946ko udazkenean, Donostiako *La Voz de España* egunkarian, Zarauzko berriemai-le zen Frantzisko Juaristi *Pipe-kalek*, «Zeozer egin bearko uke» eskatu omen zion-eta.

Bertsolari zaharren aipamen eta pasadizoak idazten zituen aldizka, jaien kontuak eta hola, baina artean ez herri kirolen konturik.

1946ko abenduaren 19an, esate baterako, «Santo Tomasko feria txorixua ta ogia» zela-eta, gazteleraz eta euskaraz egin zuen idazlanak harrera ona izan zuen, itxura danez. Eta hartan jarraitu zuen.

Handik aurrera urte askoan idatzi zuen *La Voz de España*, *El Diario Vasco*, *Zeruko Argia*, *Goiz-Argi*, *Arantzazu* eta herrietako aldizkarietan. Bere azkenengo idatzia, oker ez bagaude, 1994ko azaroaren bian bidali zuen *El Diario Vasco*-ra. Urteen zamak eta osasunik ezak dena uztera behartu zuten.

Azken urteetako bere bizimoduaren laburpena honela egin zuen, 1962ko abenduaren 30ean, Euskaltzaindiak antolatu ohi zituen Bertsolarien Txapelketa Nagusi hartan, A. Irigoyenek, «hiru bertsotan kontatu behar dezu zure bizitza» aginduta:

Goguan artua det, ai, zer esan duan.  
Lan pixkat egiten det periodikuan,  
berriketaldi batzuk gero radiuan.  
Familiiko goxoan andrian onduan,  
antxen bizitzen nazu al dedan moduan.

Erriz erri bertsotan ibili biarrak,  
an azaltzen ditugu dauzkagun indarrak.  
Gozatzen dira gazte eta berdin zarrak.  
Eman dizkigulako ain doai ederrak,  
Jaungoiko altsua, nik biotzez eskerrak.

Irugarrena ere kantako det garaiz,  
tristurarikan gabe txit arpegi alaiz.  
Gureztat iñun ez da biar ainbeste eiz,  
milla duoren jabe izan ez arren iñoiz,  
daukadan pixkarekin gustora bizi naiz

(Auspoa, 22. 147 or.)

Eranskina: Al-Diedir, Afrikatik, Basarrik gurasoei zortzi bestsotan egindako eskutitza. Tomas Uriarte zeneren alaba Arantzik emana.

Gurasoei eskutitza  
Basarriren mendeurrena

Aqui, aita, ta ama,  
maiztan gorax  
Papelbera aitu dut  
egorritte eumoa.  
Denengo goramkat,  
denentzat haxax,  
ta lumata maite  
aurorantze euz.  
Alaxite haxax (1013)  
Bestetan elaxax!

Itxi amata maite  
dax gorax  
ez eñ dize egin  
daxan, eñax!  
Eñax maite eñax  
igax haxax!  
Bax maite maite  
eñax haxax eñax!  
Bax maite maite  
haxax eñax!

Joraxi, aita, ama,  
maite maite!  
Inen eñax haxax  
axaxite haxax!  
Eñax maite maite  
eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!

Amata, aita, ama,  
eñax eñax!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!

Amata, aita, ama,  
eñax eñax!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!  
Eñax maite maite!